Derrigorrezko betearazpeneko epai edo administrazio prozeduretan, adjudikazioaren zenbatekoa ordaintzen denetik hilabete pasatu baino lehen aurkeztu behar da eredua.

**Laugarrena. 322 eredu berriaren onarpena.**

Bat. 322 eredu berria onartu da: “Balio Erantsiaren gaineko Zerga. Erakunde taldea. Banakoen eredua”. Foru agindu honen IV. eranskinean dago.

Bi. Eredu hau erakunde talde bateko kide diren enpresaburuek eta profesionalek aurkeztu behar dute, Balio Erantsiaren gaineko Zergari buruzko urtarrilaren 19ko 12/1993 Araugintzako Foru Dekretuaren 163. quinquies artikuluan xedatutakoarekin bat etorriz.

Hiru. Zergapeko batzuek eredu jakin batzuk Internet bidez telematikoki aurkezteko baldintza orokorrak eta prozedura ezarri dituen otsailaren 3ko 39/2010 Foru Aginduan xedatutakoarekin bat etorriz, eredu hau Internet bidez aurkeztu behar da nahitaez.

XEDAPEN GEHIGARRI BAKARRA. 734/2010 Foru Aginduaren aldaketa. Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko foru diputatuaren azaroaren 19ko foru agindu horrek eredu hauek onartu zituen eta telematikoki aurkezteko baldintza orokorrak eta prozedura ezarri zituen: 576 eredua, Zenbait Garraiobideren gaineko Zerga Bereziaren autolikidaziorako aurkeztu beharrekoa; 06 eredua, Zenbait Garraiobideren gaineko Zergaren aitorpenerako salbuetsiek eta kargapean ez daudenek (aurretik onartuta ez daudenek) aurkeztu beharrekoa; 05 eredua, Zenbait Garraiobideren gaineko Zerga Bereziaren ordainketakoa, zergapean ez egoteko edo salbuespena edo zerga oinarriaren txikipena aplikatzeko aurkeztu beharrekoa (aurretiazko onarpenarekin).

734/2010 Foru Aginduaren I. eta II. eranskinak, 576 eta 06 ereduei buruzkoak, hots, hurrenez hurren, Zenbait Garraiobideren gaineko Zerga Bereziaren autolikidazioari eta Zenbait Garraiobideren gaineko Zerga Bereziari buruzkoak. Zerga salbuespenen eta aldez aurretik onartu gabeko lotu gabeen aitorpena Foru agindu hau ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera, aipatutako eranskinetan IAT kodeari egiten zaizkion erreferentzia guztietan, orain arteko zortzi karaktereko erreferentzia egin ordez bederatzi karaktereko erreferentzia egingo da, zeren horrako hori aldatu egin baita azaroaren 18ko ITC 3219/2011 Aginduaren bidez.

XEDAPEN INDARGABETZAILEA

Foru agindu hau indarrean jartzen denetik aurrera, indargabetu egingo dira bertan xedatutakoaren aurkako maila berdineko edo apalagoko xedapen guztiak, eta, bereziki, uztailaren 7ko 470/2010 Foru Agindua, salbu eta 310 ereduari dagokionean: “Balio Erantsiaren gaineko Zerga. Araubide erraztua. Hiru hilez behingo autolikidazioa”.

AZKEN XEDAPENA

Foru agindu honek ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera izango du indarra, eta 2012ko irailaren 1etik aurrera hasitako likidazio aldiei dagozkien autolikidazioa aurkezpenetan aplikatuko da.

Vitoria-Gasteiz, 2012ko irailaren 18koa.– Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko foru diputatua, JOSÉ ZURITA LAGUNA.– Ogasun zuzendaria, JUAN IGNACIO MARTÍNEZ ALONSO.

Si se trata de procedimientos judiciales o administrativos de ejecución forzosa, el plazo de presentación será de un mes a contar desde el pago del importe de la adjudicación.

**Cuarto. Aprobación del nuevo modelo 322.**

Uno. Se aprueba el nuevo modelo 322 “Impuesto sobre el Valor Añadido. Grupo de entidades. Modelo Individual” que figura como Anexo IV de la presente Orden Foral.

Dos. Este modelo será presentado por los empresarios o profesionales que formen parte de un grupo de entidades en virtud de lo dispuesto en el artículo 163 quinquies del Decreto Foral Normativo 12/1993, de 19 de enero, del Impuesto sobre el Valor Añadido.

Tres. La presentación de dicho modelo se realizará obligatoriamente por vía telemática, a través de internet de conformidad con lo dispuesto en la Orden Foral 39/2010, de 3 de febrero, por la que se establecen las condiciones generales y el procedimiento para la presentación telemática por Internet para determinados obligados tributarios y modelos.

DISPOSICIÓN ADICIONAL ÚNICA.- Modificación de la Orden Foral 734/2010, del Diputado de Hacienda, Finanzas y Presupuestos de 19 de noviembre, de aprobación del modelo 576 de autoliquidación del Impuesto Especial sobre Determinados Medios de Transporte, del modelo 06 de declaración del Impuesto Especial sobre Determinados Medios de Transporte, exenciones y no sujeciones sin reconocimiento previo, del modelo 05 del Impuesto Especial sobre Determinados Medios de Transporte, Solicitud de no sujeción, exención o reducción de la base imponible que requieren reconocimiento previo, se establecen las condiciones generales y el procedimiento para la presentación telemática de los mismos.

Anexos I y II de la Orden Foral 734/2010, relativos al modelo 576 de autoliquidación del Impuesto Especial sobre Determinados Medios de Transporte y al modelo 06 Impuesto Especial sobre Determinados Medios de Transporte. Declaración de exenciones y no sujeciones sin reconocimiento previo. A partir del día siguiente a la publicación de la presente Orden Foral en el BOTHA, en todas las refencias al Código ITV que se realizan en los anexos citados anteriormente se debe sustituir la referencia a que el mismo consta de 8 caracteres por una referencia a que el mismo consta de 9 caracteres por haberse modificado dicho extremo por Orden ITC 3219/2011, de 18 de noviembre.

DISPOSICIÓN DEROGATORIA

Desde la entrada en vigor de la presente Orden Foral quedan derogadas cuantas disposiciones de igual o inferior rango se opongan a lo dispuesto en la misma y en particular la Orden Foral 470/2010, de 7 de julio, salvo en lo relativo al Modelo 310 “Impuesto sobre el Valor Añadido. Regimen simplificado. Autoliquidación trimestral”.

DISPOSICIÓN FINAL

La presente Orden Foral entrará en vigor el día siguiente al de su publicación en el BOTHA, y será de aplicación, por primera vez, para la presentación de las autoliquidaciones correspondientes a los períodos de liquidación iniciados a partir de 1 de septiembre de 2012.

Vitoria-Gasteiz, a 18 de septiembre de 2012.– El diputado de Hacienda, Finanzas y Presupuestos, JOSÉ ZURITA LAGUNA.– El director de Hacienda, JUAN IGNACIO MARTÍNEZ ALONSO.

## INGURUMEN ETA HIRIGINTZA SAILA

**5221**

**418/2012 FORU AGINDUA, irailaren 7koa. Honen bidez, onartu egiten da Bergondako (Lantaron) SAUR 3 bizitegi sektorearen plan partzialaren espedientea behin betiko onartu zuen uztailaren 11ko 351/2012 Foru Aginduan ezarritako baldintzak bete direla.**

I.- AURREKARIAK

Lehenengoa.- Ingurumen eta Hirigintza Saileko foru diputatuaren uztailaren 11ko 351/2012 Foru Aginduaren bidez, behin betiko onartu zen Bergondako (Lantaron) SAUR 3 bizitegi sektorearen plan partzialaren espedientea.

## DEPARTAMENTO DE MEDIO AMBIENTE Y URBANISMO

**5221**

**ORDEN FORAL 418/2012, de 7 de septiembre, aceptación del cumplimiento de las condiciones impuestas en la Orden Foral 351/2012, de 11 de julio, de aprobación definitiva del expediente de Plan Parcial del Sector Residencial SAUR 3 en Bergüenda, municipio de Lantarón.**

I.- ANTECEDENTES

Primero.- Mediante Orden Foral 351/2012, de 11 de julio, de la Diputada de Medio Ambiente y Urbanismo se aprobó definitivamente el expediente de Plan Parcial del Sector Residencial SAUR 3 en Bergüenda, municipio de Lantarón.

Foru agindu hori betetzeko, ezinbestekoa zen bertan adierazten ziren aldaketak espedientean jasotzea.

Bigarrena.- 2012ko uztailaren 27an, Lantarongo Udalak espedientearen testu bateratua bidali zion Foru Aldundiari, betearazi beharrekoa dela adieraz zezan, izapideak egin zitezen eta argitara eman zedin.

II.- OINARRIAK

Aurkeztutako dokumentazioa aztertu ondoren, egiaztatu da aipatutako foru aginduan ezarritako baldintzak bete egin direla eta testuan eta agiri grafikoetan egin beharreko aldaketak egin direla.

Horregatik, eta dagozkidan eskumenez baliatuz, hauxe

XEDATU DUT

Lehenengoa.- Betetzat jotzea Ingurumen eta Hirigintza Saileko foru diputatuaren uztailaren 11ko 351/2012 Foru Aginduan ezarritako baldintzak. Foru agindu horren bidez, behin betiko onartu zen Bergondako (Lantaron) SAUR 3 bizitegi sektorearen plan partzialaren espedientea.

Bigarrena.- Ebazpen hau ALHAOn argitaratzea.

Hirugarrena.- Administrazio bidea agortzen duen ebazpen horren aurka administrazioarekiko auzi errekurtsoa aurkeztu ahalko da zuzenean, bi hilabeteko epean, ebazpena jakinarazi edo argitaratu ondorengo egunetik kontatzen hasita, Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiaren jurisdikzio horretako salan.

Vitoria-Gasteiz, 2012ko irailaren 7a.– Ingurumen eta Hirigintza Saileko foru diputatua, MARTA RUIZ CERRILLO.

**BERGONDAKO (LANTARON) SAUR-3 BIZITEGI SEKTOREAREN PLAN PARTZIALA**

ORDENANTZA ARAUTZAILEAK

I. KAPITULUA.- XEDAPEN OROKORRAK.

**1. artikulua.- Aplikazioko lurralde eremua.**

Bergondako SAUR-3 bizitegi sektorearen plan partzial honetako zehaztapenek arau izaera izango dute antolamendu planoetan adierazitako eremuan. Lerro poligonalak emango du mugaketa zehatza, eta lerroaren erpinak antolamendu planoetan adierazitako UTM koordenatuetara egokituko dira.

Lurzatiaren azalera, guztira, 7.826,56 $m^2$ da.

SAUR-3 SEKTOREAREN azalera, guztira, 4.891,22 $m^2$ da.

**2. artikulua.- Edukia.**

1.- Ordenantza hauen bidez, Lantarongo arau subsidiarioen 12. aldaketa puntualean jasotako SAUR-3 sektoreko (eremuko fitxari dagokio) lurzoru kalifikazio guztien erregimena arautzen da, bai eta hori garatzen duten planeamenduko tresnek bete beharreko zehaztapenak ere.

2.- Plan partzial honek zehaztuko du sektore osoa zein azpizonatan banatuko den, lehentasunezko erabileren arabera.

3.- Ordenantzak hiru atal handitan egituratuko dira:

a.- Xedapen orokorrak

b.- Lurzoruaren hirigintza araubidea.

c.- Zonakako ordenantza bereziak

**3. artikulua.- Nahitaezkotasuna.**

Ordenantza honetako artikuluak nahitaez aplikatu beharko dira plan partzialaren eremuan egiten diren jarduketa guztietan.

**4. artikulua.- Gauzatzea.**

Egikaritze unitate bakar baten bidez gauzatuko da planeamendua.

**5. artikulua.- Indarraldia.**

Plan partzialaren behin betiko onarpena argitaratzen den egunean sartuko dira indarrean ordenantza hauek, eta eperik gabe egongo dira indarrean, harik eta plan hori barnean hartzen duen beste bat behin betiko onartu arte.

La ejecutoriedad de la citada Orden Foral quedó condicionada a la introducción en el expediente de las modificaciones que se señalaban en la misma.

Segundo.- Con fecha 27 de julio de 2012, el Ayuntamiento de Lantarón ha remitido a la Diputación el texto refundido del expediente, con el fin de que sea declarada la ejecutoriedad del mismo y se proceda a su diligenciación y publicación.

II.- FUNDAMENTOS

Analizada la documentación aportada se comprueba que ha dado cumplimiento a las condiciones impuestas en la Orden Foral mencionada, introduciendo las modificaciones necesarias tanto en el texto como en los documentos gráficos.

En su virtud, haciendo uso de las facultades que me competen,

DISPONGO

Primero.- Dar por cumplidas las condiciones impuestas en la Orden Foral 351/2012, de 11 de julio, de la Diputada de Medio Ambiente y Urbanismo, por la que se aprobó definitivamente el expediente de Plan Parcial del Sector Residencial SAUR 3 en Bergüenda, municipio de Lantarón.

Segundo.- Publicar la presente resolución en el BOTHA.

Tercero.- Contra la anterior resolución, que pone fin a la vía administrativa, podrá interponerse directamente recurso contencioso-administrativo, en el plazo de dos meses a contar del día siguiente al de la notificación o publicación de la misma, ante la Sala de dicha Jurisdicción del Tribunal Superior de Justicia del País Vasco.

Vitoria-Gasteiz, 7 de septiembre de 2012.– La diputada de Medio Ambiente y Urbanismo, MARTA RUIZ CERRILLO.

**PLAN PARCIAL DEL SECTOR RESIDENCIAL SAUR-3 DE BERGÜENDA, MUNICIPIO DE LANTARÓN**

ORDENANZAS REGULADORAS

CAPITULO I.- DISPOSICIONES GENERALES.

**Artículo 1.- Ámbito territorial de aplicación.**

Las determinaciones del presente Plan Parcial Sector Residencial S.A.U.R.-3 de Bergüenda, tendrá carácter normativo en el ámbito indicado en los planos de ordenación. La delimitación exacta viene definida por la línea poligonal, cuyos vértices responden a las coordenadas UTM. señaladas en los planos de ordenación.

La superficie total de la parcela es de 7.826,56 $m^2$.

La superficie total del SECTOR S.A.U.R.- 3 es de 4.891,22 $m^2$.

**Artículo 2.- Contenido.**

1.- Estas Ordenanzas regulan el régimen de cada una de las calificaciones del suelo incluidas en el Sector S.A.U.R.-3 de la 12ª Modificación Puntual de las Normas Subsidiarias de Lantarón, correspondiente a la ficha de ámbito, así como las especificaciones que deberán cumplir los instrumentos de planeamiento que lo desarrollan.

2.- El presente plan parcial definirá la división en subzonas de la totalidad del sector, conforme a sus usos prioritarios.

3.- Las ordenanzas se estructurarán en tres grandes apartados:

a.- Disposiciones Generales

b.- Régimen Urbanístico del Suelo

c.- Ordenanzas Particulares por Zonas

**Artículo 3.- Obligatoriedad.**

Los diferentes artículos de las presentes Ordenanzas deberán aplicarse obligatoriamente a todas y cada una de las actuaciones que se realicen dentro del ámbito del plan parcial.

**Artículo 4.- Ejecución.**

La ejecución del planeamiento se realizará mediante unidad de ejecución única.

**Artículo 5.- Vigencia.**

La fecha de entrada en vigencia de las presentes Ordenanzas será el día en el que se publique la aprobación definitiva del plan parcial, y su vigencia será indefinida hasta que se apruebe definitivamente otro nuevo que lo abarque.

**6. artikulua.- Udal planeamenduko arau subsidiarioen aplikazio osagarria.**

Ordenantza hauetan araututa ez dagoen guztirako, Lantarongo udal planeamenduko indarreko arau subsidiarioak aplikatuko dira.

**7. artikulua.- Agirien balio arautzailea.**

1.- "Ordenantza arautzaileak" eta "Antolamendu planoak" izeneko dokumentuek dute arau izaera, eta hirigintza jarduera arautzen dute; horren ondorioz, haietan ezarritakoa bete beharko da.

2.- Gainerako dokumentu guztiek azalpenetarako edo informaziorako balio dute; beraz, dokumentu hauen eta aurreko atalean aipatutakoen artean kontraesanik balego, haiek nagusituko dira.

**8. artikulua.- Gauzatze tresnak.**

1.- Hona hemen plan partzial hau gauzatzeko tresnak: urbanizazio proiektua, zeina SAUR-3 sektorerako bakarra izango den, eta eraikinak gauzatzeko eraikuntza proiektuak.

2.- Eraikuntza proiektuetarako baimena eskuratu baino lehen, urbanizazio proiektua onartu eta gauzatu beharko da, plan partzial honetan zehaztutako zonetako bakoitzerako ezartzen diren zehaztapenen arabera.

**9. artikulua.- Kudeaketa tresnak.**

Udal planeamenduko arau subsidiarioetan aurreikusitakoari jarraiki, jarduketa sistema lankidetzakoa izango da.

II. KAPITULUA.- LURZORUAREN HIRIGINTZA ARAUBIDEA.

*1. atala.- Lurzoruaren kalifikazioa.*

**10. artikulua.- Kalifikazio orokorra eta xehatua.**

1.- Lantarongo udal planeamenduko arau subsidiarioetan ezarritako zehaztapenetan dago ezarrita lurzoruaren kalifikazio osoa, eta antolamendu planoetan dago irudikatuta.

2.- Hauxe da sektorearen berezko erabilera: familia bakarreko eraikin atxikia; sustapen publikoko etxebizitzak.

3.- Lurzoruaren kalifikazio xehatua antolamendu planoan dago adierazita: "Kalifikazio xehatua". Lurzoru mota hauek barne hartzen ditu:

a. Irabazizko aprobetxamendua duen azpizona: - Bizitegiak.
- Ekipamendu pribatua.
b. Komunikazioetarako azpizona publikoa.
c. Espazio libreetarako azpizona publikoa.
d. Zerbitzu azpiegituretarako azpizona publikoa.

**11. artikulua.- Zonen banaketa.**

1.- Aurreko kalifikazioak ikusita, SAUR-3 sektorearen eremua zonatan azpibanatu da, eta erabilera xehatuak esleitu zaizkio, hirigintza araubidea arautze aldera:

a. Bizitegitarako azpizona: irabazizko aprobetxamendua duen lurzorua:
- Bizitegitarako azpizona, familia bakarreko eraikin atxikiena. Sustapen publikoko etxebizitza.
- Ekipamendu pribatutarako azpizona.
b. Komunikazioetarako azpizona publikoa:
- Galtzadak.
- Espaloiak.
- Aparkalekuak.
c. Espazio libreetarako azpizona publikoa:
- parkeak eta lorategiak.
d. Zerbitzu azpiegituretarako azpizona publikoa:
- Energia elektrikoaren eta gasaren ekoizpen eta hornikuntza.

2.- Azpizona horietako bakoitza "Kalifikazio xehatua" planoan irudikatuta dago, eta bere arauketa zona bakoitzerako ordenantza berezien atalean ezartzen da. "Definizio geometrikoa, sestrak, kotak eta azalerak" izeneko planoan eta "Bide sarea eta zeharkako eta luzetarako profilak" izeneko planoan adierazten dira zehatz-mehatz kalifikazio xehatuen mugak; era berean, lurzati eraikigarrien nahiz

**Artículo 6.- Aplicación supletoria de las Normas Subsidiarias de Planeamiento Municipal.**

Para todos aquellos aspectos no regulados en las presentes Ordenanzas, les serán de aplicación las vigentes Normas Subsidiarias de Planeamiento Municipal de Lantarón.

**Artículo 7.- Alcance normativo de la documentación.**

1.- Los documentos de "Ordenanzas Reguladoras" y "Planos de Ordenación" son los que poseen carácter normativo y de regulación de la actividad urbanística, debiéndose por tanto cumplimentarse lo por ellos especificado.

2.- Todos los demás documentos tienen fundamentalmente carácter explicativo e informativo por lo que en el caso de observarse contradicciones en su contenido con los citados anteriormente, serán aquellos los que prevalezcan.

**Artículo 8.- Instrumentos de ejecución.**

1.- Los instrumentos de ejecución del presente plan parcial serán: proyecto de urbanización, que será único para todo el sector S.A.U.R.-3, y los proyectos de edificación para la ejecución de las construcciones.

2.- Previa la obtención de licencia de los diversos proyectos de edificación, se deberá aprobar y ejecutar el oportuno proyecto de urbanización, conforme a las determinaciones establecidas en el presente plan parcial para cada una de las zonas en él definidas.

**Artículo 9.- Instrumentos de gestión.**

El sistema de actuación, previsto por las Normas Subsidiarias de Planeamiento Municipal, es el de cooperación.

CAPITULO II.- RÉGIMEN URBANÍSTICO DEL SUELO.

*Sección 1ª Calificación del Suelo.*

**Artículo 10.- Calificación Global y Pormenorizada.**

1.- La calificación global del suelo procede de las determinaciones establecidas en las Normas Subsidiarias de Planeamiento Municipal de Lantarón, y se expresa gráficamente en los planos de ordenación.

2.- El uso característico del sector corresponde al residencial unifamiliar Adosada, de Viviendas de Promoción Pública.

3.- La calificación pormenorizada del suelo se expresa en el plano de ordenación: "Calificación Pormenorizada". Corresponde a los siguientes tipos de suelo:

a. Subzona con aprovechamiento lucrativo: - Residencial.
- Equipamiento Privado.
b. Subzona pública de comunicaciones.
c. Subzona pública de espacios libres.
d. Subzona pública de infraestructuras de servicios.

**Artículo 11.- División de zonas.**

1.- A la vista de las calificaciones anteriores se ha subdividido el ámbito del sector S.A.U.R.-3 en una zonificación, con asignación de usos pormenorizados, al efecto de la regulación de su régimen urbanístico:

a. Subzona residencial: suelo con aprovechamiento lucrativo:
- Subzona residencial de edificación unifamiliar adosada. Vivienda de Promoción Pública.
- Subzona de Equipamiento Privado.
b. Subzona pública de comunicaciones:
- Calzadas.
- Aceras
- Aparcamientos.
c. Subzona pública de espacios libres:
- Parques y jardines.
d. Subzona pública de infraestructuras de servicios:
- Producción y suministro de energía eléctrica y de gas.

2.- Cada una de estas subzonas, se representa en el plano de "Calificación Pormenorizada", estableciéndose su regulación en el apartado de Ordenanzas Particulares para cada zona. En el plano de "Definición Geométrica, Rasantes, Cotas y Superficies" y plano de "Red Viaria, Perfiles Longitudinales y Transversales"; se indican con precisión, las delimitaciones de las diferentes calificaciones porme-

espazio publiko esanguratsuenen neurriak mugatu eta erpinak zehazten dira UTM koordenatuen bidez.

*2. atala. Lurzatikatzeak.*

**12. artikulua.- Plan partzialaren zehaztapenek duten lotura maila.**

Plan partzialean (Lerrokadurak eta sestrak) adierazitako erabilera eta jabari publikoko lursailen mugaketa loteslea da, eta horren ondorioz, bizitegitarako lurzatien kanpoko lerrokadura ere bai.

**13. artikulua.- Lurzatikatze baldintzak.**

Familia bakarreko etxe atxikiaren erabilera duten lurzatiak.

Ezin da zatiketarik egin; hortaz, lurzatien neurriak, mugak eta azalerak planoek jasotzen dituztenak izango dira (zuinketari berezkoak zaizkion doikuntzak eta zuzenketak sektorea urbanizatu ondoren baino ezingo dira egin; gainera, betiere lursailen errealitate fisikora egokitzeko xedea izango dute).

*3. atala. Urbanizazio proiektuak arautzea.*

**14. artikulua.- Xedea.**

1.- Urbanizazio proiektuak obra proiektuak dira, plan partzialean jasota dauden zehaztapen jakin batzuk gauzatzeko egiten direnak, batez ere bide (ibilgailuentzako eta oinezkoentzako), azpiegitura eta zerbitzuen sareekin lotutakoak: ur horniketa, ur beltzen saneamendua, euri uren saneamendua, energia elektrikoa, argiteria publikoa, telekomunikazioak, gasa, ureztaketa sarea, zaborrak biltzea eta erabilera eta jabari publikoko espazio libreak (berdeguneak, haurren jolasguneak eta erabilera publikoko espazio libreak) atontzea.

2.- Lurzoruaren eta Hirigintzaren ekainaren 30eko 2/2006 Legeak ezarritakoa eta Lantarongo udal planeamenduko arau subsidiarioetan ezarritakoak beteko dituzte proiektu hauek, baita ordenantza hauetan jasotako zehaztapenak ere.

3.- Eremuko fitxaren arabera, plan partzialaren barruan urbanizatuko dira nahitaez laga beharreko azalera guztiak. Ekipamendutarako zonak berdegune bezala urbanizatuko dira, baina ez da planta ederreko zuhaitzik jarriko, harik eta euren erabilera zehaztu arte. Lurzatiaren ekialdean dagoen berdegunea Lantarongo udal planeamenduko arau subsidiarioetan ezarritako gidalerroen arabera urbanizatuko da, zehazki, eraginaren baterako ebaluazioaren azterlanari jarraituz taxututako birlandatze proiektuaren arabera (memoria honen 1. eranskinean jasota dago).

**15. artikulua.- SAUR-3 sektoreko urbanizazio proiektuen eremua. Arkitektura oztopoak ezabatzea.**

1.- SAUR-3 sektorea gauzatzeko, urbanizazio proiektu bakarra idatziko da, eta horrek jabari eta erabilera publikoko esparru guztiei eragingo die eta zerbitzu bakoitzari (edo kapitulu bakoitzari) dagozkion proiektu partzialak hartu ahal izango ditu; horiek, edonola ere, esparru osoa hartuko dute, etapa bakarrean burutzea aurreikusita dagoelako.

2.- Proiektuak barnean hartuko ditu hornidura iturrietatik egin ahal diren zerbitzuen lotuneak, sektorearen esparrutik kanpokoak badira ere, zerbitzu horien funtzionamendu egokia bermatzeko.

3.- Arkitektura oztopoak kentzeari dagokionez, nahitaez bete beharko dira Irisgarritasuna Sustatzeari buruzko abenduaren 4ko 20/1997 Legea eta Hiri Inguruneen, Espazio Publikoen, Eraikinen eta Informazio eta Komunikazio Sistemen Irisgarritasun Baldintzei buruzko Arau Teknikoak onartzen dituen apirilaren 11ko 68/2000 Dekretua.

**16. artikulua.- Plan partzialaren zehaztapenek duten lotura maila.**

Urbanizazio proiektuak ezin izango ditu aldatu plan partzialaren oinarrizko xedapenak. Hala ere, xedapen horiek obrak burutzeko irizpide eta beharrizan teknikoetara egokitzea onartuko da, baldin

norizadas, acotándose las dimensiones de las parcelas edificables y de los espacios públicos más significativas, con acotación de sus dimensiones y señalamiento de sus vértices mediante coordenadas UTM.

*Sección 2ª Relativo a las parcelaciones.*

**Artículo 12.- Vinculación de las determinaciones del plan parcial.**

La delimitación de los terrenos de uso y dominio público, y como consecuencia de ello la alineación exterior de las parcelas residenciales, indicada en el plan parcial (Alineaciones y Rasantes) es vinculante.

**Artículo 13.- Condiciones de parcelación.**

Parcelas de uso de vivienda unifamiliar adosada.

No admite parcelaciones, siendo las dimensiones, límites y superficies, de las distintas parcelas, las que figuran en planos. (Únicamente se permitirán ajustes o correcciones, propios del replanteo, una vez realizada la urbanización del Sector, para adecuarse a la realidad física de los terrenos).

*Sección 3ª Regulación de los proyectos de urbanización.*

**Artículo 14.- Objeto.**

1.- Los proyectos de urbanización, son proyectos de obras, cuya finalidad es llevar a la práctica determinaciones contenidas en el plan parcial, referidas fundamentalmente a las redes viarias (rodada y peatonal), de infraestructuras y servicios: abastecimiento de agua, saneamiento de aguas fecales, saneamiento de aguas pluviales, energía eléctrica, alumbrado público, telecomunicaciones, gas, red de riego, recogida de basuras y acondicionamiento de los espacios libres de uso y dominio público (zonas verdes, áreas de juego de niños, y espacios libres de uso público).

2.- Estos proyectos cumplirán lo establecido en la Ley 2/2006, de 30 de Junio, de Suelo y Urbanismo, y en las Normas Subsidiarias de Planeamiento Municipal de Lantarón, además de las determinaciones contenidas en las presentes ordenanzas.

3.- De conformidad con la ficha de ámbito, se urbanizará con cargo al plan parcial la totalidad de superficies de cesión obligatoria. Las zonas de equipamiento se urbanizarán como zonas verdes sin especies de gran porte, en tanto no se concrete su utilización. La urbanización de la zona verde situada al este de la parcela se realizará conforme a las directrices planteadas por las Normas Subsidiarias de Planeamiento de Lantarón y, en concreto, al Proyecto de Revegetación, según el Estudio de Evaluación Conjunta de Impacto Ambiental, el cual se adjunta en el Anejo 1 de esta memoria.

**Artículo 15.- Ámbito de los proyectos de urbanización en el sector S.A.U.R.-3. Supresión de barreras arquitectónicas.**

1.- Para la ejecución material del sector S.A.U.R.-3 se procederá a la redacción de un único proyecto de urbanización que afecte a la totalidad de los espacios definidos como de dominio y uso público, que podrá comprender distintos proyectos parciales referidos a cada uno de los distintos servicios (o capítulos distintos), que contemplarán en cualquier caso la totalidad del ámbito dado que se prevé su ejecución en una única etapa.

2.- El proyecto o proyectos, incluirán las posibles conexiones de los distintos servicios, desde las fuentes de suministro, aunque sean exteriores al ámbito del sector, de manera que se garantice su correcto funcionamiento.

3.- Será de obligado cumplimiento, sobre supresión de barreras arquitectónicas, la Ley 20/1997, de 4 de diciembre, sobre Promoción de la Accesibilidad y el Decreto 68/2000, de 11 de abril, por el que se aprueban las normas técnicas sobre condiciones de accesibilidad de los entornos urbanos, espacios públicos, edificaciones y sistemas de información y comunicación.

**Artículo 16.- Grado de vinculación de las determinaciones del plan parcial.**

El proyecto de urbanización no podrá modificar las previsiones fundamentales del plan parcial. No obstante, podrá admitirse la adaptación de aquellas previsiones a criterios y necesidades técnicas de

eta egokitzapen hori justifikatuta badago, eta honakoak aldatzen ez badira: plan partzialak kalifikatutako azalerak eta lurzoruaren edo eraikinaren antolamendua eta araubidea. Kasu horietan, plan partziala aldatzea izango litzateke, eta, horretarako, aldez aurretik aldaketaren izapidea egin behar da.

**17. artikulua.- Dokumentazioa.**

Urbanizazio proiektuan, gutxienez, Lurzoruari buruzko 2/2006 Legean adierazitako dokumentuak jaso beharko dira; gainera, proiektua gauzatzeko, Lantarongo arau subsidiarioen gauzatze materialerako tresnen 4. kapituluko 15. artikuluan aurreikusitakoa bete beharko da.

**18. artikulua.- Urbanizazio proiektua diseinatzeko baldintzak.**

1.- Komunikazioetarako azpizona publikoa. Ibilgailuentzako bide sarea

Bide sarearen neurri osoak (aurrez aurreko lerrokaduren artekoak) lotesleak izango dira.

a) Ibilgailuentzako galtzaden neurriak gutxi gorabeherakoak izango dira, eta aparkalekuetarako alboetako zerrendekin batera doitu ahal izango dira. Aparkaleku area horietako plazak, guztira, ezingo dira izan plan partzialaren planoan adierazitakoak baino gutxiago.

b) Plan partzial honetan adierazitako bideen tipologia ez da lotesleа izango, eta bere definizio zehatza SAUR-3 sektorearen urbanizazio proiektua idaztean eta onestean zehaztuko da.

2.- Espazio libreetarako azpizona publikoa.

a) Neurri osoak lotesleak izango dira (aurrez aurreko lerrokaduren artekoak).

b) Beharrezkoa dela iritziz gero, hiriko altzariak (eserlekuak, paperontziak, eta abar) aukeran jarriko dira, betiere espazioaren nolakotasuna eta funtzioa kontuan hartuta.

**19. artikulua.- Urbanizazio obra guztietarako baldintzak.**

1.- Urbanizazio obra guztiak egokituko zaizkie sektorean indarrean dagoen eta bete behar den araudiari, zerbitzu bakoitza hornitzen duten enpresen araudiari eta udal zerbitzu egokiek orokorrean ezarritakoei.

2.- Azpiegitura zerbitzuetako sareen eskemen planoetan adierazten diren trazadurak eta neurriak soilik adierazgarriak dira; beraz, aldaketak egin daitezke -–inoiz ez nabarmenak–, behar bezala justifikatuta, urbanizazio proiektuari dagokion bezala aztertu eta zehaztasun handiagoz kalkulatu ostean.

3.- Urbanizazio proiektu hau etapa bakarrean burutuko da. Hala ere, eraikuntza eta urbanizazioa batera joan daitezen, urbanizazioa burutzeko, fasetan egitea azter daiteke.

4.- Urbanizazio proiektua izapidetu eta onartzeko, proiektuari berezkoak zaizkion dokumentuez gain, honako agiri hauek aurkeztu beharko dira: plan partzialaren behin betiko onarpenaren idazkia, antolamendu planoak eta bide sarearen planoak eta plan partzialeko azpiegitura sareen eskema.

5.- Obra edo zerbitzu mota bakoitza urbanizazio proiektuaren kapitulu berezia izango da (aparteko proiektuak izan daitezke), eta ordenantza hauen 17. artikuluan adierazitako agiriak hartuko ditu barnean.

6.- Zerbitzuen azpiegituren sareei buruzko proiektuetan kontuan hartuko dira instalazioen arteko tarteetarako gutxieneko baldintzak, bai eta zuhaitzen sustraiek etorkizunean egin ditzaketen kalteak ere.

7.- Azpiegitura sareak egiterakoan, ezin izango da espazio libre publikoetan sareetako armairurik zein kontagailurik jarri, behar-beharrezkoa ez bada; eta hala izanez gero, lurpean jarriko dira. Kasu berezia da, ordea, transformazio gunea, izan ere, hori gauzatzeko enpresa hornitzailearen irizpideei kasu egingo zaie, beharrezkoa bada.

8.- Urbanizazio proiektua idazteko eta espazio libreetarako zein sektoreko bideetako espaloietarako, Lantarongo udal planeamenduko arau subsidiarioetan ezarritako araudia aintzat hartuko da, zehazki 135. artikulua (Zuhaitzak babestea).

ejecución de las obras, siempre que se justifique dicha adaptación y no signifique modificación de las superficies calificadas por el plan parcial, ni alteraciones sobre ordenación y régimen de suelo o de la edificación, adquiriendo en este caso carácter de modificación del plan parcial, lo que exigirá previamente su tramitación como tal.

**Artículo 17.- Documentación.**

El proyecto de urbanización deberá comprender como mínimo los documentos indicados en la Ley del Suelo 2/2006, y se ejecutará teniendo en cuenta lo previsto en el artículo 15 del Capítulo 4 Instrumentos de Ejecución Material de las Normas Subsidiarias de Lantarón.

**Artículo 18.- Condiciones de diseño para el proyecto de urbanización.**

1.- Subzona pública de comunicaciones. Red viaria rodada.

Son vinculantes las dimensiones totales (entre alineaciones opuestas) de la red viaria.

a) Las dimensiones de las calzadas de rodadura se consideran orientativas, pudiendo reajustarse conjuntamente con las bandas laterales de aparcamiento. Estas áreas de aparcamiento no podrán reducirse en su capacidad total en número de plazas, respecto de lo indicado en el plano correspondiente al plan parcial.

b) La tipología de los viales señalada en el presente plan parcial no dispone de carácter vinculante, quedando su definición concreta diferida a la redacción y aprobación del proyecto de urbanización del sector S.A.U.R.-3.

2.- Subzona pública de espacios libres.

a) Son vinculantes las dimensiones totales (entre alineaciones opuestas).

b) Se dotará, si se considera necesario, de mobiliario urbano (bancos, papeleras, etc.) en disposición libre, pero teniendo en cuenta el carácter y función de este espacio.

**Artículo 19.- Común a todas las obras de urbanización.**

1.- Las obras de urbanización se adaptarán a la normativa sectorial vigente de obligado cumplimiento, así como a la propia de las empresas suministradoras de cada servicio, y a las establecidas con carácter general por los servicios municipales correspondientes.

2.- Los trazados y dimensionamientos indicados en los planos de esquemas de redes de los distintos servicios de infraestructura tienen carácter indicativo, pudiendo por tanto sufrir modificaciones –nunca sustanciales- debidamente justificadas, como consecuencia del estudio y cálculo con mayor precisión que compete al proyecto de urbanización.

3.- Este proyecto de urbanización contemplará su ejecución en una única etapa. Sin embargo, y con el fin de simultanear la edificación con la urbanización, se podrán estudiar fases distintas para la ejecución de la urbanización.

4.- Para la tramitación y aprobación del proyecto de urbanización, serán presentados además de su documentación propia, el oficio de aprobación definitiva del plan parcial; planos de ordenación, red viaria y esquema de redes de infraestructura del plan parcial.

5.- Cada clase de obra o servicios, constituirá un capítulo independiente (pudiendo ser proyectos independientes) del proyecto de urbanización que contendrá los documentos indicados en el artículo 17 de estas Ordenanzas.

6.- En los proyectos referidos a redes de infraestructuras de servicios, se tendrán en cuenta las condiciones mínimas de separación entre distintas instalaciones, así como la afección futura por raíces del arbolado.

7.- En la ejecución de las redes de infraestructura no se podrán situar los armarios, contadores, de las distintas redes en los espacios libres públicos, salvo que sea estrictamente necesario y en este supuesto, se colocarán en subterráneo. Mención aparte resulta ser el centro de transformación, que se ejecutará, de ser necesario, siguiendo los criterios de la empresa suministradora.

8.- En la redacción del proyecto de urbanización, y para el conjunto de espacios libres, así como para las aceras de los viales del sector se tendrá en cuenta la normativa establecida en las Normas Subsidiarias de Planeamiento del Ayuntamiento de Lantarón en su Artículo 135.- Protección del arbolado.

9.- Halaber, Lantarongo Udalak ezarritako baldintza teknikoekin bat etorriz egingo da urbanizazio proiektua.

**20. artikulua.- Komunikazioetarako azpizona publikorako urbanizazio proiektuaren baldintza teknikoak. Ibilgailuentzako eta oinezkoentzako bide sarea.**

1.- Alderdi grafikoan, eta planeamenduaren arautegiaren 52. eta 60. artikuluak betetzeko, dauden bide motak azaltzen dira, ondoko zehaztapenak ezarrita:

a.- Oinplanoaren trazadura

b.- Behin betiko sestrak. Sestren egungo egoera.

c- Zeharkako profilak eta luzerako aldapak.

2.- Bide sareak izan beharreko baldintza zehatzak urbanizazio proiektuak ezarriko ditu, plan partzialean ezarritako zehaztapenen arabera; hala ere, lurraren baldintzak kontuan hartuta, doikuntzak eta egokitzapenak jaso ditzake, bai proiektua idazten den fasean bai obra gauzatzerakoan.

3.- Bideen zoladura proiektatu, kalkulatu eta dimentsionatzeko, indarrean dagoen araudia aplikatuko da eta, inguruko aldeen itxura berdina izan behar duenez, Lantarongo Udalak orokorrean hartutako irizpideak aplikatu beharko dira.

4.- Bidezoruaren neurriak autoen eta nekazaritzako ibilgailuen zirkulazioa jasateko behar bestekoak izango dira.

5.- Obrak burutu baino lehen, bide sareak hartuko dituen zonetan edo zolatu beharreko beste aldeetan gaineko landare lurraren geruza kendu eta bilduko da, gerora lorategien guneetan aprobetxatzeko.

6.- Oinezkoen esparruetan akaberako zoladura jarri behar izanez gero, honakoak hartu beharko dira kontuan: urraduraren kontrako erresistentzia; garbiketako eta etxe aldaketako ibilgailuak, anbulantziak eta abar igarotzeak sortzen dituen berezko kargen kontrako erresistentzia; izozteko aukera; ura edo izotza egonez gero, izan dezakeen labaingarritasuna; konponketarik egin behar izanez gero, erraz aldatzeko modukoa den; apaindura maila, eta erraz garbitu daitekeen.

7.- Gutxieneko hiri altzari egokiak jarriko dira, oinezkoak edo, kasuan kasu, ibilgailuak, oztoporik gabe igarotzeko moduan.

**21. artikulua.- Espazio libreetarako azpizona publikorako urbanizazio proiektuaren baldintza teknikoak.**

Aurreko artikuluan espaloietarako eta oinezkoen pasealekuetarako ezarritako guztia aplikatu ahal izango da. Berdeguneen urbanizazioko eta lorezaintzako proiektuaren baldintza teknikoei dagokien atalean zehazten dena aplikatuko da lorategietarako, baita ordenantza hauek 18. artikuluan ezarritakoa ere.

**22. artikulua.- Urez hornitzeko, ureztatzeko eta suteetarako ur harguneen sareetarako urbanizazio proiektuaren baldintza teknikoak.**

